

INAUTERIKO KARROZA ETA KONPARTSEN LEHIAKETA. OINARRIAK 2012.

MODALITATEAK ETA TALDEAK

Karrozak. Gutxienerako neurriak: 2,5 zabal, 7 m luze eta 1 m altu izango da plataforma. Derrigorrezko baldintzak: ibilgailu baten gainean egina edo atoian eramana; soinu ekipoa; emanaldia; extintorea; aseguroa; eta, gutxienez 5 partaide (> 5 urte).

Konpartsak. Ez dago gutxienerako neurririk, ez eta derrigorrezko baldintzarik ere. Lau talde daude:

A taldea: 25 lagun baino gehiago.

B taldea: 13 eta 25 bitartean.

C taldea: 6 eta 12 bitartean.

D taldea: 1 eta 5 bitartean.

IZENA EMATEKO

Tolosako Kultur Etxean edo Udalaren web orrian (www.tolosakoudala.net) eman behar da izena. Epea 2012ko otsailaren 10ean bukatzen da (kalderero bezpera), 13:00etan.

Izena emandakoan, zenbaki bat jasoko du parte hartzaileak. Zenbaki hori, emanaldian, bistan eduki behar da.

EPAIMAHAIA

Zazpi kidek osatuko dute epaimahaia: Festa Batzordeko lehendakariak, Tolosako Udalaren ordezkari batek eta Inauterietako karroza eta konpartsen lehiaketako ohizko parte hartzaileen bost ordezkariak: aurreko urteko bost horietatik denbora gutxiena daramaten biek jarraitzen dute hurrengo urtean ere, eta falta diren hirurak aurreko urteko irabazleen artean zozketan bidez osatuko dira.

SARIAK

Sarituak txapela bana jasoko dute, zer sari den idatzita duela. Sariak hauexek izango dira:

- Karrozen lehen saria.
- A taldeko konpartsen lehen saria.
- B taldeko konpartsen lehen saria.
- C taldeko konpartsen lehen saria.
- D taldeko konpartsen lehen saria.

DIETAK PARTE HARTZEAGATIK

Tolosako Udalak dieta bat emango die lehiaketan parte hartzen duten guztiei. Kopurua, parte hartzaileen datuak eta argazkiak ikusita, modalitatearen eta taldearen arabera zehaztuko dira.

Dieta jasotzeko, inauteriaren ondoren, derrigorrezkoa da aurkeztea:

- Parte hartzailearen datuak.
- Karroza edo konpartsen argazki bat. Argazkian parte hartzaile guztiak eta plataforma garbi ikusi behar dira.

Argazkiak eta datuak aurkezteko epea 2012ko martxoaren 2an bukatzen da, 13:00etan. (Pinata igandearen hurrengo ostirala).

EPAIA ETA SARI BANAKETA

Epaia 2012ko otsailaren 24an (Piñata igandearen aurreko ostirala) arratsaldeko 19:00etan udaletxeko Batzar aretoan gauzatuko den ekitaldian emango dute jakitera. Bertan emango zaizkie txapelak irabazleei.

FERIALEKUA ERABILTZEKO ARAUAK

- Debehatuta dago udal baimenarik gabe ferialekua erabiltzea. Erabiltzaieleek Udal Kultur sailean baimena eskatu behar dute.
- Udalak guneak zehaztuko ditu, eta erabilgai daudenak taldeei adjudikatuko dizkie.
- Karroza eta konpartsa handiek lehentasuna izango dute.
- Gune bakoitzean erabiltzailearen izena jarriko da. Talde bakoitzak emandako tokia erabiliko du, sarbideak libre utziz. Eta, taldearen ardura izango da gunea baldintza onetan mantetzea.
- Karrozen eraikuntza prozeduran halanola desmontaketan sorzen diren zaborrak uzteko, Udalak ferialekuaren kanpoaldean gune bat prestatuko du, eta Udala bera arduratuko da zaborra horiek kudeatzeaz.
- Debehatuta dago kotxeak ferialeku barruan egotea.
- Udalak ferialekuaren kontrola eramango du. Arauak betetzen ez badira, bi aldiz ohartarazi ondoren arauak bete ez dituen taldea zigortu egingo da.

BESTERIK

- Debehatuta dago kotxeak erabiltzea konpartsak egiteko.
- Debehatuta dago konpartsa edo karrozan publizitatea egitea.
- Arratsaldeko zezen ikuskizunaren ondoko ohizko kalejirari trabarik ez egitearren, karrozek eta konpartsa plataformadun guztiek zezen plazaren inguruan gelditu beharko dute kalejiran parte hartzen duten txaranga guztiak pasa arte, baldin eta 17:30ak baino lehen erdi aldera ez badira abiatu. Alegia, kalejiraren ibilbidea txarangentzat libre egon behar du. Kalejira pasatzen denean karrozek megafonia itzali egin behar dute.
- Karroza eta konpartsen emanaldi guztiek 01:00etarako amaitu beharko dute.
- Sonido ekipoak gehienez 1.500 W izango ditu.

AZKEN ARAUA

Lehiaketan parte hartzeko izena emateak berekin du arautegi hau eta bere eranskina (1) onartzea. Epaimahaiaren eskumena da lehiaketa honetan sortu daitezkeen arazoek gaineko erabakia hartzea.

(1) Ikusi oinarri honekin batera I. Eranskina "Karroza eta konpartsen lehiaketaren inguruan ohiko galderei erantzunak".

I. ERANSKINA

Karroza eta konpartsen lehiaketaren inguruan ohiko galderei erantzunak.

Inauteritan karroza-konpartsa bat atera nahi dugu, zer egin behar dugu?

Karroza edo konpartsa bat ateratzeko ez da baimen berezirik behar, gogoia, humorea, ilusioa eta besteekiko errespetua nahikoa dira.

Aukerakoa da udalak antolatzen duen "karroza eta konpartsen lehiaketa" honetan parte hartzeko izena ematea. Lehiaketan parte hartzeak baditu abantaila batzuk -besteak beste- eraikitzeko ferrialde erabili ahal izatea, aseguruak, parte hartzeagatik dietak, sariak eta plataforma gordetzeko aukera.

Lehiaketan parte hartu nahi izan ezker irakurri oinarriak eta parte hartu nahi baduzu, eman izena kultur etxean lortuko duzun inprimakian edo udalaren web orrian: www.tolosakoudala.net

Zein ezaugarri izan behar dituzte? Nola dakigu gurea karroza edo konpartsa bat den?

Egiturari dagokionean, karrozak eta konpartsak guztiak partaideen eta ikusleen segurtasuna bermatu behar dute, horretarako eraikitzerakoan eta erabiltzerakoan beharrezkoa diren segurtasun eta sendotasun neurriak beteko dituzte. Udalaren esku geratzen da segurtasun-sendotasun eskasa duen karroza konpartsei iharduna galaraztea.

Karroza izateko gutxienezko baldintza batzuk bete behar ditu:

- Gutxienezko neurriak: 2,5 metro zabal, 7 metro luze eta 1 altu.
- Ibilgailua edo atoiaren eramandako plataforma izango da.
- Sono ekipoa izango du.
- Emanaldiak eskainiko dira.
- Su-itxalgailua eramango du.
- Gutxienez 5 urte baino gehiago dituzten 5 partaide izango ditu.

Karroza izateko baldintza guztiak betetzen ez dituzten beste gainerakoak, konpartsak dira.

Publizitatea jarri daiteke karroza konpartsan?

Ez, lehiaketaren oinarrietan galarazita dagoela jartzen du.

Eta, soinu ekipoa, badu gehieneko indar mugarik?

Bai, gehienez 1.500 W. izan ditzake.

Ordutegirik ba al dago karroza konpartsen emanaldietarako?

Bai, goizaldeko 01:00etarako bukatu behar da, eta ezin daiteke goizeko 08:00ak baino lehenago hasi.

Eta arratsaldean, kalejira pasatzen denean, zer egin behar dugu?

Kalejiraren ibilbidea (Zezen Plaza, Oria, San Frantzisko, Trianguloa, Korreo, Berdura Plaza) 17:30etarako libre egon behar du. Kalejira pasa arte bere ibilbidetik kanpora ibili behar duzue, eta ondotik pasatzen denean megafonia itzali egin behar duzue.

Lehiaketan parte hartzeagatik udalak ematen dituen dietak kobratzeko zer egin behar da?

Udalak antolatutako "Inauteriko karroza eta konpartsen lehiaketa"-n parte hartzen baduzue diruz ordaintzen den dieta bat jasotzeko aukera duzue. Dieta kobratzeko -inauteriaren ondoren- aurkeztu behar duzue:

1. "Datu orria" beteta.
2. "Karroza - konpartsen argazkia". Garbi ikusi behar da eraiki duzuen plataforma halanola atera zareten partaide guztiak.

Aurkezteko epea 2012ko martxoaren 2a -ostirala- amaitzen da, kultur etxean edo on-line (www.tolosakoudala.net) egin daiteke.

Zenbatekoak dira dietak?

Talde bakoitzak bere dieta dauka. Kopuruak udalak jartzen ditu horretarako aurrekontuetan onartu den kopuruaren arabera, eta talde bakoitzaren ezaugarrien arabera, alegia: karroza edo konpartsa den,

partaide kopurua, plataformaren neurria, argiztapena, sonorizazioa, emanaldia, dantza, parodia...etb. kontutan hartzen dira.

Zer egin behar da karroza-konpartsa bat ferialean eraiki ahal izateko?

Feriala erabili ahal izateko udalak antolatzen duen lehiaketan izena eman behar da. Izena ematen duzuenean eskatu ferialean tokia, eta adieraziko zaizue non jarri zaitezketen. Ferialaren erabilera arauak honako hauek dira:

- Debekatuta dago udal baimenarik gabe ferialekua erabiltzea. Erabiltzaielek Udal Kultur sailean baimena eskatu behar dute.
- Udalak guneak zehaztuko ditu, eta erabilgai daudenak taldeei adjudikatuko dizkie.
- Karroza eta konpartsa handiek lehentasuna izango dute.
- Gune bakoitzean erabiltzailearen izena jarriko da. Talde bakoitzak emandako tokia erabiliko du, sarbideak libre utziz. Eta, taldearen ardura izango da gunea baldintza onetan mantetzea.
- Karrozen eraikuntza prozeduran halanola desmontaketan sorzen diren zaborrak uzteko, Udalak ferialekuaren kanpoaldean gune bat prestatuko du, eta Udala bera arduratuko da zaborra horiek kudeatzeaz.
- Debekatuta dago kotxeak ferialeku barruan egotea.
- Udalak ferialekuaren kontrola eramango du. Arauak betetzen ez badira, bi aldiz ohartarazi ondoren arauak bete ez dituen taldea zigortu egingo da.

Noiz hasi gaitzke feriala erabiltzen?

Ferialaren erabileraren hasiera datak Udalak jarriko ditu. Aldakorrak izango dira, urte bakoitzean ferialean izaten diren beste erabileren arabera.

Nahi dugun tokian jarri gaitzke?

Ez. Feriala erabiltzeko baimena eskatzerakoan adieraziko zaizue non jarri zaitezketen. Neurri handikoek lehentasuna izango dute. Pasabideak libre egon behar dute karroza handiek atera eta sartu ahal izateko.

Ferialeko giltza behar al dugu?

Bai, baimena eskatzerakoan giltzaren kopia bat emango zaizue. Ferialetik ateratzen azkena baldin bazara argiak itzali eta atea giltzaz itxi behar duzu.

Ordutegi jakin bat dago ferialean lana egiteko?

Ez, ez dago ordutegirik. Giltza izango duzuen esku geratzen da goizean noiz hasi eta gauean noiz bukatu.

Edozein lan klase egin daiteke ferialean?

Pertsonarentzat eta aretoarentzat arriskurik ez izatea da muga.

Feriala zaindu egin behar da, alegia: ezin da lurra edo paretak pintatu, kolpatu, kristalarik apurtu etab. Bereziki arriskutsuak diren tresnak erabiltzerakoan arreta handiz jokatu istripurik gerta ez dadin (soldadorak, rotaflexak...etab.).

Feriala ez da jantokia. Momentu jakin batean mokadu bat jan daiteke bertan, baina ezin daiteke jana prestatu edota otordu nagusiak egiteko tokia balitz bezala erabili.

Gure kotxea sartu dezakegu ferialera?

Ez. Kotxeak kanpoko aparkalekuan utzi behar dira. Pisua duen pieza edo tresneria hustu behar denean bakarrik sartu daiteke eta hustutakoan berriro atera behar da.

Arrisku egoera bat sortzen bada zer egin behar dugu?

Arrisku gunetik aldentu eta deitu segituan Udaltzaingora (gorde mugikorrean zenbakia: 943-675858).

Beraiek aztertuko dute egoera zein den eta zein den jokabiderik egokiena. Gogoan hartu karrozak derrigorrez eraman behar dutela extintorea –eraikitzen hasten denetik-, eta ferialean ere su itzalgailuak badirela.

Tresneria, materiala, musika aparatuak ...etab. utzi daitezke ferialean egun batetik bestera?

Balioa duen ezer ez uztea gomendatzen dugu. Kontutan hartu jende asko ibiltzen dela bertan eta behin baino gehiagotan gertatu izan direla lapurretak. Udalak ez du bere gain hartzen ardura hori, beraz lanean bukatutakoan dena jaso eta eraman.

Bainan, inauteri egunetan, montaketa egina dagoenean ere jaso behar dugu musika ekipoa, grupoa etab.?

Inauteri egunetan Udalak zaintzaile bat kontratatzen du, gau eta egun egoten da ferialean okerrik gerta ez dadin. Zaldunita bezperan arratsaldeko 16:00etan hasten da eta hausterrez eguerdiko 14:00etan bukatzen du. Hala ere, ezin daiteke bermatu utzitakoaren erabateko segurtasuna, beraz ahal den kasuetan balio handiko ezer ez utzi bertan. Ez udalak ez eta laguntzailearen enpresak ere ez du bere gain hartuko okerrekoen erantzukizuna.

Eta inauteriaren ondoren zer egin behar dugu gure karroza – konpartsarekin?

Zure karroza edo konpartsa gordetzearen ardura ez baduzue udalaren esku utzi nahi, inauteriaren ondorengo bi astetan zuek arduratu behar duzue ferialeatik hartzeaz eta zuen jabeagoko gordelekura eramateaz.

Hurrengo urterako gordetzea Udalaren esku utzi nahi baduzue berriz, hauek dira plataformak bete behar dituzten baldintzak:

1. Gutxienez 5 metro luze izan behar dute.
2. Egoera onean egon behar dute, alegia: estruktura sendoa eta mugikortasuna bermatuta; erruberak osorik, engantxeak neurriaren eta pisuaren arabera egokiak...etab.
3. Desmontatu egin behar dira, alegia: plataforma bera eta desmontatu ezin daitezkeen elementu estrukturalak bakarrik utzi behar dira, gainerako guztia kendu eta jaso edo bota egin behar da.
4. Jabearen datuak jarrita izan behar ditu (izen deiturak eta telefonoa). Datuak modu iraunkorren jarri behar dira (adib.: pinturaz), ez da nahikoa -esate baterako -boligrafoz paper puska batean.

Gordetzeko eskatzen diren baldintzak betetzen ez dituzten plataformak jabeen esku geratuko dira. Egoera onean daudenak gordelekura eramaten bukatzerako ez badituzue eraman, ferialean geratzen den guztia bota egingo dugu.

Desmontajea non eta noizko egin behar da?

Ferialean bertan egin daiteke desmontaketa. Ferialeko kanpo aldean hurrengo urterako erabilgarri ez den guztia pilatzeko gunea egongo da. Udala arduratuko da hondakin horiek guztiak botatzeaz.

Desmontaketa Inauteria bukatu eta hurrengo bi aste naturaletan bukatu behar da, hau da piñata igandearen hurrengo igandea (2012eko martxoaren 4a).

Eta argibide hauek betetzen ez dituztenekin, zer?

Udalak onartutako oinarriak eta eranskinak betetzen ez dituztenak "karroza eta konpartsa lehiaketa"-tik kanpo geratuko dira, ondorioz ez dituzte lehiakideek dituzten eskubideak izango, alegia: eraikitzeako feriala erabili ahal izatea, aseguruak, parte hartzeagatik dietak, sariak eta plataforma gordetzeko aukera.

2012KO INAUTERIKO KARROZA ETA KONPARTSEN LEHIAKETAN PARTE

HARTZEKO

IZENA EMATE ORRIA

Izena-emate

zenbakia

(Udalak jartzen du.)

PONER **X**

KARROZA (7 mt. Luze x 2,5 mt. Zabal x mt. 1 altu.)	
KONPARSA (karroza ez diren gainerakoak)	
TITULOA	
ERAIKITZEKO FERIA LA ERABILI NAHI BADUZUE NEURRIAK	Luze zabal

ARDURADUNA	Izen abizenak..... N.A.N..... Helbidea..... Telefonoa (fijoa eta sakelekoa)..... e-mai-a.....
-------------------	--

2012KO INAUTERIKO KARROZA ETA KONPARTSEN LEHIAKETAKO DIETA

JASOTZEKO DATU ORRIA (derrigorrez aurkeztu behar da kobratu ahal izateko.

Epea martxoaren 2an amaitzen da.)

jarri X

Karroza		izenburua:	<u>Izena emate zenbakia</u>
Konpartsa			
arduraduna:	Izen abizenak:..... Telefonoa(fixoa eta sakelekoa)..... Kontu korrontea (20 zenbaki).....		

jarri X

Emanaldi egunak:		goiza	Arratsal.	gaua
	igandea			
	astelehena			
	asteartea			

DATUAK:	jarri BAI edo EZ
Atoian eramandako plataforma (traktorez...)	
Ibilgailu bat da (kamioia, furgoneta, kotxea)	
Eskuz eramaten dugu (motorrik gabe)	
Plataforma bera beste karroza – konpartsa batean ere erabiltzen dugu	
Parte hartzaile kopurua > 25	
Parte hartzaile kopurua 13tik 25era	
Parte hartzaile kopurua 6tik 12ra	
Parte hartzaile kopurua < 6	
5 urte baino gehiago dituzten neska parte hartzaile kopurua	Kopurua:
Soinu ekipoaren W. kopurua	
Argiztapena	
Emanaldia	
Emanaldian dantza egiten dugu	
Emanaldiak parodia bat du	
Emanaldiaren argazkia orri honen atzealdean itsatsita (DERRIGORREZKOA)	
Datorren urterako gure plataforma Udalak gordetzea nahi dugu	
Honetaz gain, diru laguntzaren zenbatekoa jartzerakoan honako beste datu hauek ere kontutan hartzea nahi dut:	